


 BOOKTEGI

haize-lekua

MIREN ARTETXE SARASOLA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

MIREN ARTETXE SARASOLA

Haize-lekua

ATXONDO

Behin baten bai eijetoŕen neska gaste bat, ausoko baseŕi baten josten einda gero, bere etxerantz. Eta bidian etoŕela santzo bat entzun eijeban. Berak-be erantzun ein eijotzan.

Bigaŕen santzua. Eta berak-be bigaŕenez erantzun eijotzan. Irugaŕena, ta bardin.

Ba urŕengo goxian toki artan ez eijeben aurkitu besteik ule batzuk ta janzki sati batzuk izan ezik.

E. LARRAÑAGAk Axpen jasoa, 1921ean.

ALFA

ORAINDIK AKORDUAN DAUKAT izan nuen arnasgora, eraikinean sartu nintzenean. Hain zen hura ohituta zegoenaren aldean ezberdina. Hain gela zuriak, hain leiho handiak. Eta egoiliarrak han, geldi. Geldotasun hark eman zidan atentzioa. Koadro batean sartu izan banintz bezala. Bizitza x0,5ean. Kontrastean, urrezko esku-muturrekoak elkar joz klin-klinka zerabiltzan zuzendari crossfitlaria.

—Ikusten duzu, instalazioak berriak dira, eta espazio guztia dago adineko pertsonen ongizatera bideratuta. Sarrera ere, esan dizudan gisan, irisgarria da gurpildun aulkientzako.

—Bera oinez ibiltzeko gai da.

—Bai, noski. Aurrera begira interesgarria da jakitea, dena den, eraikin osoa dela irisgarria. Lehen solairu honetako egongelan egin daitezke bisitak. Hainbat irakurgai ditugu bertan, aldizkariak, kartak eta dominoan jolasteko piezak ere prest izaten ditugu, eta haurrentzako jostailuak dauzkagu txoko horretan, bilobek bisitan etorri nahiko balute ere.

—Biloba gazteenak hamabost urte bete berri ditu.

—Ene! Ba oso gaztea dirudizu! Ezta, Josune?

Lau egoiliar mahaian jarrita zeuden eta Josune barreiatuta zeuden domino fitxak kutxan sartzen ari zen, mahaia kartetarako libratzeko. Ea gaur baten batek errebantxa hartzea lortzen duen, ezta, Maribi? Maribi izan behar zuenak zeharka begiratu zion, irribarrerik gabe, eskuan zeuzkan kartak kideei banatu bitartean. Josunek begi-keinua egin zidan. Begirada kendu nion.

—Etorri nirekin. Bigarren solairuan, ikusten duzun bezala, gelak dauzkagu. Korridore honetan banakakoak eta, beste hartan, binakakoak. Zuek binakakoa aukeratu duzue, ondo ulertu badut.

—Berak aukeratu du.

—Binakakoa aukeratu du. Ederki. Zatoz ba. Ikusten duzun bezala, hemen behar duen guztia izango du. Norberak bere armairua, ohea, mesanotxea, eta mahaitxo bat ere bai, bere jarleku eta guzti. Eta leihotik mendia ikusten da, dena berde; ez al da zoragarria? Telebista ere gela guztietan daukagu. Bizilagunarekin moldatu behar, zer ikusi aukeratzeko, hori bai! Ziur ederki moldatuko direla. Hemendik. Hirugarren solairuan miradorea deitzen diogun gela ere badugu.

Begira zeinen ederra. Asko gustatzen zaie. Hemen ere telebista ikus dezakete, baina tarteka, leihotik begiratu eta hara ze bistak. Ez al da zoragarria?

—Zoragarria, bai.

Hau ez da Axpen sekula egon, pentsatu nuen nik. Pinudi zahar horri bista esan egin behar zaio, gero.

—Eta hemen errehabilitazio gunea eta psikoestimulazio gela. Batean ariketa fisikoak egiten dituzte, duten forma fisikoari eusteko, edo are, hobetzeko! Asko izugarri malgutzen dira hona etortzean. Ikusiko duzu. Fisioterapeuta oso jatorrak dauzkagu. Jende asko etortzen da hona errehabilitatzera soilik, ez pentsa. Ospitaletik etxera bidali orde z hona ekartzen dituzte hilabetez- edo, eta errazago bizkortzen dira. Zatoz, sartu barrura. Hemen, psikoestimulazio gelan, buru- ariketak egiten dituzte. Oroimena lantzekoak, puzzleak, horrelakoak. Asko gustatzen zaie. Atzo eskulanetan aritu ziren eta txukundu gabe dago, barkatuko duzu. Etorri nirekin. Hori da, hemendik. Eta hemen, tatxan! Ile-apaindegia. Hau da gure zerbitzu izarra.

—Premia badu, bai.

—Nola?

—Ez, ezer ez.

—Ez dakizu zeinen gustura egoten diren hemen kontuak esaten eta tinduak berritzen. Gizonak ere gustura etortzen dira e, ez pentsa! Apain askoak dira batzuk. Denetik dago, gauzak diren bezala. Hori kanpoan ere bai, ezta? Beno, ba nahi baduzu bulegora joango gara eta bertan egingo ditugu paper kontuak, ondo iruditzen bazaizu.

—Ondo da.

—Azpiko solairuan dauzkagu bulegoak. Hemendik, hori da. Itxi atea, mesedez. Eseri lasai. Ezer baino lehen fitxa bat bete behar dugu. Eulalia esan didazu, ezta?

—Bai, Eulalia Oleaga.

—Zer duzu, ama, amaginarreba, izeba?

—Ama. Ama dut. Nire ama da.

Halaxe esan nuen. Beste behin ere bai, beste hizkuntza batean ari banintz bezala, nire burua entzuteaz harrituta.

—Nire ama da.

—Ederki. Ai, ene! Ez ba horrela jarri, emakumea. Hor ondoan dauzkazu mukizapiak. Ez larritu, askori gertatzen zaie. Hartu arnasa. Batzuetan aukerarik onena da, benetan diotsut. Egon zaitez lasai, zure ama ondo zainduta egongo da.

BAT

IKUSIKO ZENUEN, Presen. Betikoak izan ginen zure hiletan. Inoiz irudikatuko zenuen zeure hileta, ezta? Ba halakoxea. Loreek atentzioa ematen zuten, hori bai. Hura lore-festa. Loretan neurtzen da estimua hiletetan. Jendea beti izaten da berdina. Loretan. Ninerik ez zen, Presen. Garbiñeri eman nion dirua etxekoen arrosa zurizko koroarako. Hark jesarrarazi ninduen lehen lerroan, bera eta Mirenen artean. Nora zoaz, esan zidan, bigarren lerroan jartzera nindoala ikusi zuenean; nora zoaz, ahapeka, baina ozen, esanaz bezala ezin dut hemen oihuka hasi, beraz, zatoz hona derrepentean. Estimatu nion hori ere. Aukerarik utzi ez izana. Jendeak ikusi egin zuen hark eskatu zidala lehen lerroan jartzeko.

Nola eutsi zioten negarrari Garbiren bi kakanarruek ere, aizu. Ikusi egin behar zenituen haien intziriak, ordea, agurjesusenama entzuterako. Haien estutasunak. Harro egongo zinatekeen.

Zortea izan genuen. Juanito apaiza kanpoan egokitu, eta Don Emiliok eman zuen meza. Alde ederra. Ordu erdi gutxiago bai.

Ilunabar hartan bertan jaso genituen Garbiñe eta biok zure arropak-eta, supermerkatuetan saltzen dituzten plastiko gogorreko poltsa horietan. Hiru edo lau.

Gauean ezin izan nuen begirik bildu, goizegi jaso genituela irudituko zitzaizula pentsatuz. Mindu ez izana espero dut. Baina zeren zain egon behar genuen ba? Hobe zen lehenbailehen bistatik kendu eta eman. Errukia ematen zuten armairuan soineko eta alkandora koitadu haiek dingilizka zure zain.

Hara, egia esango dizut. Gernu infekzioa esan zuenean medikuak, akabo ba, pentsatu nuen nirekiko; hori al zen dena. Zer pentsatu behar nuen nik, Presen. Nola pentsatu behar nuen. Konturatzerako ez omen zegoen ezer egiterik eta nik eskua heltzen nizun eta medikuak behin eta berriz azaltzen zuen bere ustez guk ulertzeko moduan antibiotikoek ez zutela beren lana egin, zure gorputzak ez zuela erantzun, infekzioak giltzurrunak hartu zizkizula eta odola gero, eta odolak gaitza barreiatu zuela eta nik eskua heltzen nizun estu eta momentu batean hatz oskolekin atximur ere egin nizun, Presen, iratzarri ba, Presen, zer zabilta hor begiak itxita, nora zoazela uste duzu ni hemen utzita.

Eta Garbik tira egin zidan besotik. Eta kito esan zidan. Kito, Lali, eta besarkatu egin ninduen eta nik zuri begiratzen nizun Garbiren besoen artetik, esanaz bezala, nahikoa da, Presen, baina zuk ez zenuen begirik zabaldu eta nik ez nuen negarrik egin.

Garai batean Tia Dorari pasako genion abisua, kanpaiak jo zitzan, eta jendea hurbilduko zen inguruko baserrietatik gurera doluminak eman eta laguntza eskaintzera eta galdezka, baina zu hil eta berehala etorri ziren beilatokikoak ospitaleko gelaraino eta gu Axpera itzuli ginenean kanpaiek ez zuten hotsik egin. Hurrengo goizean auskalo ze elizatan grabatutako kanpai-hotsen zinta hori jarri zuten kanpandorreko bozgorailuetatik, baina ordurako jendeak Whatsappez jasoa zuen beila-ordutegia eta baita zure eskelako argazkia ere.

Dotore askoa zu. Lore urdindun alkandora soinean duzuna jarri genizun. Beti esan izan dizut ondo ematen zizula. Poltsa haietako batean sartuta eraman genuen hura ere besteekin batera. Berokia ostu nizun, hori bai. Artilezko beroki grisa. Handitxo eta, batez ere, luze gelditzen zait eta Garbik esaten dit hanka-motzago egiten nauela. Baina harekin irteten naiz paseora orain bisitan etortzen zaidanean.

Ez dizut esan, Presen. Oruen nago. Zaharren egoitzan. Bai. Bi aste daramatzat hemen. Eta nahiko ondo. Leiho zabal-zabalak ditu eta epel-epel egoten da egun osoan. Karrajuetan ere bai. Arrazolako Inaxirekin jarri naute gelan, badakizu? Larregaineko bizi-alargunarekin. Ondo, bai. Zer esango dizut ba. Hura zaharra dago, isil-isilik egoten da eta egun batzuetan lo besterik ez du egiten. Goizetan tarteka ohean uzten dute besteok gimnastikara joaten garenean. Ez dakizu ze gauza eginarazten dizkiguten, Presen. Ez zenuke sinistuko. Besoak gora eta beheara hegan doazen antzarak dirudigu gelako ispilu handian, lepoak makur eta samak luze. Ikusiko bagintuzu.

Orain hemen gauzkate, besaulki hauetan denak lerro-lerro, behiak kortan nola, telebistari begira. Bisitak heldu ahala etxekoek hartu eta kanpora eramaten gaituzte denbora ona bada, norbere gelara euria bada. Garbik laster behar du hemen. Asteazkenetan lauretarako ateratzen da lanetik eta hemen erlojuek den ordua markatzen dute.

Ikusi behar zenuen koitadua, lehen aldiz bisitan etorri zenean. Zain-zain nengoen ni eta egongelatik entzun nuen nola esan zuen nire izena. Norengana zatoz? Eulalia Oleagarengana, berak. Eta Josunek —gure zaintzaileak, oso neska jatorra, durangarra, baina umila— egongelan sartu bezain laster, Eulalia, alaba etorri zaizu bisitan!

Halako arnasaldi bat egin nuen aditu nuenean. Lotsagorritu egin nintzen, aizu. Sinesten al didazu? Garaiotan. Garbiri begiratu nion eta bazirudien hark ez zuela entzun. Ez zion zuzendu behintzat eta ni isilik geratu nintzen. Zer moduz zaude galdetu zidan eta ingurura begira hasi zen bestela baitakoan, lekura ezin eginda. Zatoz gelara, Garbi. Ikusiko duzu zeinen txukuna. Inaxi, ezagutzen al duzu Garbiñe? Presenen alaba zaharrena, akorduan izango duzu. Egon pixka batean, Garbi. Armairua zabaldu, berokia hartu eta paseoan irtengo gara, esan nion. Nik hura besotik heldu eta errepidean oinez joan ginen, biok isilik, luze. Haren nahigabea senti nezakeen pausajea. Ehun bat metro egingo genituen askatu zuenerako.

Luzeegi daukazu abrigoa.

Badakit.

Itzul zaitez etxera, mesedez.

Ezta pentsatu ere.

BI

ADITU KONTU BAT, Presen. Gaur hemen zegoen gizon bat eramán dute zerraldo. Ikusi egin dut nola eramán duten ohatilan, izarapean, korridorean aurrera. Asturiaskoa omen zen izatez. Inaxik esan dit Arrazolako minetan ibilia zela, kontu egizu. Kasualitatea, bezperan ile-apaindegira joana zen. Beilatokikoek lan gutxiago izango dute, hori bai. Baina ni asteon nintzen joatekoa ile-sustraiak tindatzera eta bekainetako ileak kentzera eta dagoeneko esan diet ez naizela joango. Esan diezadala Garbik nahi duena.

HIRU

BEHI-ESNE USAINA GOSARITAN, Presen. Horrexek ematen dit higuina. Katilukada kafe hartzen dut nik, ez pentsa derrigortzen nautenik; besterik ez genuen behar. Baina hemen seinan-seinan jartzen gaituzte gosaltzeko eta jende gehienak kafesnea nahi izaten du, eta hor ateratzen digute mahaira metalezko pitxerkada bat behi-esne bero kafearenarekin batera. Harexek ematen dit niri atzerakoa, Presen. Horixe du honek txarra; goiza horrela hasi beharra.

Entzun, orain kontatu egingo dizut. Orain, aditzen ez didazula dakidanean, askoz errazagoa da. Ez nituen hamahiru urte izango. Neska kozkor belaun-gorri bat baino ez nintzen ni orduan. Behiak jezteko beste bai, beinke. Huraxe izaten zen nire goizeroko lana. Dozena erdi behi ziren gurean orduan, eta azkenarekin ari nintzen, aulkian jarrita, Felixen ahotsa entzun nuenean. Badakizu, zuen etxeko atartera joateko gure korta paretik pasa beharra dago eta atetik ikus nezakeen edanda zetorrela, batek daki nondik. Pausoa nahiko zuzen ematen zuen, baina bi kolpetan bezala; zango berbera luzatzea eta lurrean pausatzea koordinatu beharreko bi ekintza balira bezala, eta bere kautarako hizketan zetorren. Begiak errapeetara nik, eta zist eta zast, pentsatuz, gizajoa, ederrak entzuteko dago. Baina hark ni kortan ikusi, eta prima, esan zidan, zatoz hona, prima, eta ni ez nintzaion joan eta bera etorri zitzaidan eta balantza egin eta oinaz esne-ontzia irauli zuen eta behiaren bizkarrari heldu zion ez erortzeko. Etorri, prima, egin zidan, eta besotik heldu zidan, fuerte. Eskuen laztasuna, arnasa belarrian, esne putzua kortako sats gainean eta belaun gorri bi dardarka.

Bekarrak kendu gabe neuzkan oraindik.

Astebetean ez zitzaidan besoko beltzunea joan.

Artean ez nekien ezer.

Askotan pentsatu izan dut jakin izan banu berriz ere etxera gonbidatuko ote zintudan. Jakinda. Eta ez dakit, Presen; ez dakit.

LAU

INAXI ETA BIOK kartetan jokatzeko hasi gara bazkalondoan Maribi eta hauekin. Launaka jokatzeko ohitura zuten, eta buruak dauzkagun bezala, Presen, hobe da briskan launaka aritu seinaka baino. Hori ederki dakite Maribik eta, baina gauzak diren bezala, elkarrekin jokatzeko aspertuta zeuden dagoeneko eta gustura hartu dute okela berria. Maribi kontrario gogorra da gero. Bera da hirukoan erdian jartzen dena eta keinuak berari egiten dizkiote. Inaxi eta biok ginenez berriak, gure hirukotean egokitu zen beteranoa jarri genuen erdian, nagusi. Baldar samarra bera, baina gizalegea da, eta, badakizu.

Laugarren egunean mahaira hurbildu bezala esan zuen Maribik, Eulalia, jarri zaitez nire parean. Gure honek ez zuen txintik egin, eta hala jarri nintzen ni erdian.

Lali, deituidazu Lali, Maribi, esan nion nik.

Geroztik elkarren aldamenean ikusten dugu telebista Maribik, Inaxik eta hirurok, kontu batzuk esanez. Kontu batzuk esanez, Maribi eta biok; Inaxi isilik eta erdi-lo egoten da. Badakizu, *minik gabeko arrana ugerrak jaten du*. Maribik asko daki. Madrilen neskame ibilitakoa da kazetari famaturen baten etxean. Galdetutako denak jakiten ditu. Egunero irakurtzen du periodikoa, hasi eta buka. Horoskopoaren atalera heltzean amorratzen da. Hara bestea. Ederra tontakeria. Zer jakingo du ba honek. Periodikoak tentelkeria hauek ekartzea ere. Hau idazten duenari ere ordaindu egingo diote, aizu. Baina badaki aries naizela eta egunero irakurtzen dit nirea. Ez sinistu honi zipitzik ere e, aditu?

BOST

ESAN AL DIZUT? Dagoeneko ez dut garbiketarik egiten. Hilabeteen ez dut trapu bakar bat ere ukitu, atera kontuak. Ze gauza, e. Garbitzaileak etortzen zaizkigu gela txukuntzera, izarak aldatzera, zakarrontziak hustera eta lurrak eta komunak diz-diz batean uzten dizkigute. Baita ispiluak eta bentanak ere. Zenbat bider pentsatu ote dudan, ene, leiho hauek guztiak garbitu egin behar dira, gero. Ba garbi-garbi izaten dituzte hemen leihoak. Etxeko marka dira, nonbait.

Famatzen dituzte ba leihook, Presen. Ze bistak, kexatuko zarete, ze bistak. Hiriko hauek edozeri esaten diote bista. Egia esan eskertzen da begirada tarteka urrutira eraman ahal izatea. Hirugarren solairutik begira jarrita pinudietatik haragokoak ikus daitezke. Gogoratzen laguntzen du.

Ba begira. Atzo egongelan telebista ikusten ari nintzela hara non ikusi nuen garbitzaile gazte beltzarana erratzarekin atzera eta aurrera, eta inbidia sentitu nuen, Presen. Nire burua ikusi nuen zure ezkaratzeko azulejuak errazten, Garbi eta Mireni bazkaltzen eman ondoren. Ogi papurrak, hautsa, ileak, plastikozko pala urdina eta heltzen nion lekua ilundutako isats-kirtena. Zuk harrikoa, nik mahaia eta lurra. Nire urterik onenak, Presen.

Nola pentsatu behar nuen nik.

Berri on bat ematen duenaren irribarrearekin esan zenidan. Felixek ezkontzeko eskatu dit, Lali! Bizilagunak izango gara! Barrua bitan zatitu zidan. Zure pozak. Aizkora-ahoa enborrean bezala sartu zitzaidan notizia sabelean. Ahaleginak egin nituen ezpalei eusteko. Hauxe berri pozgarria, Presen, hauxe berri ona.

Esan egingo dizut. Hurrengo goizean egunsentiarekin Larranoraino igo nintzen ermitan Santa Barbarari eskatzera jo zezala oinaztarriak. Jo zezala bete-betean eta gelditu zedila ezkontza bertan behera. Negar egingo nuen hiletan, sorbaldatik helduko nizun esanaz hauxe da desgrazia, Presen, hauxe desgrazia gurea. Belaunak lurrean eta belarriak makurtuta eskatu nion jo zezala burutik behera. Ezkondu eta gerora ere urtetan piztu izan diot nik bedeinkatutako kandela Santa Barbarari ekaitza lehertzen zenean eta ez zenean. Trumoia bazen ala aldameneko bizitzan orrorik bazen berehala hasiko nintzen ni Santa Barbara, Santa Krutz, jaunak balio zekiguz, eta gure amak, berriz, honek dio beldurra oinaztuari honek.

Ez zen berehalakoan hil gure lehengusu hori.

Gaur pozten naiz Santa Barbarak ez zidalako kasurik egin, zer nahi duzu esatea. Ez Felixi inoiz estimurik izan diodalako. Ederki asko dakizu zuk hori. Aditu gauza bat, Presen, hori oso ondo egin genuen. Ez nik zuri berba txar bat harengatik, ez zuk berba onegirik niri. Gizon ona da. Horixe esaten zenuen, gehienez, muturra okertzen baldin banuen; gizon ona da.

Gutxi behar du gizonak ona izateko, Presen.

Zorionean landare okerra baina hazi onekoa izan, nonbait, eta hari zor dizkiot Garbi eta Miren. Horixe eskertuko diot beti zantar hari. Orain esan dezaket, Presen. Barkatuko didazu, baina zantarra izan zen zure gizona bere bizi guztian.

SEI

NEURE BARRURAKO BARREZKA daramat arratsalde guztia, Presen. Gaur gainera Garbik ezin izan du etorri zaharrena dentistarengana eraman behar zuelako eta ezin izan diot inori kontatu.

Telebistari begira geundela han azaldu da Gaur Egunekeo mengel hori esaten ez dakit zenbat diru xahutu behar dutela ez dakit nongo elizako erretaula berritzen. Erretaula berritu? Nork ikusteko, baina? Gurean behintzat meza santua aditzera ez da arimarik joaten herejetuta gaudenetik.

Orduan bota du Maribik, bera igandero joaten dela mezetara. Haren herrian oraindik jende mordoxka biltzen ei da eta bera ere alabak eramaten du igandetean. Betiko jendea ikustea gustatzen zaio. Ezpainetakoa eta perfumea eta eliza-atariko joan-etorriak eta hitz aspertuak. Oraingo abadea zera baino jatorragoa omen da, gainera, kontu egizu. Orain hurrena pulpitutik esan omen zuen infernuri ez zela. Esateko modu bat zela.

Esateko modua? Guk umezaroan pasatako izu beltzak bekaturen bat egin eta aitortu bitartean; nik izan nituen tripako minak behin kongregaziotako igandean elizara bidean bide-bazterrean marrubi bat aurkitu eta jan nuelako, gogoratu gabe jauna baraurik hartu behar zela, eta gero elizan ezin ba komunioa hartu gabe utzi, zer esango zuten ba etxean, eta nik jauna hartu, eta horiek tripako minak pentsaturik bekatua barruan neramala eta berriz konfesatu bitartean zerbait gertatuz gero, irristada txarren bat nahikoa zen, infernuan bukatuko nuela, betiereko sugarretan.

Zertzuk esaten zizkiguten baina ume zaparrooi garizumako misiotan ere. Dena zen bekatua orduan. Pentsamendua bekatua zen. Han aritzen ziren infernua gora eta infernua behera. Munduaren bukaera eta turuta-hotsak eta etsaia haren sarde eta guzti. Betiereko sua, inoiz itzaliko ez ziren sugar garaiak, bekatariak galdara berotan eta kondenak eta itolarriak eta eternitateak. Eta beldurrez airean gu.

Ni jabetzen hasi nintzen erromerietan dantzan hasi ginenean. Axpeko abadeak lizunkeria gaitzesgarritzat zuen dantza lotua inondik ere, eta, aldiz, Axpen bekatu mortala zena Durangoko abadeak ez zuen debekatzen, eta han libre zen elkarri gerritik heltzea. Orduan hasi nintzen ni ernatzen; Durangon eta Axpen bi jainko ezberdin ez baziren, abadeei dena sinisterik ez zegoen.

Ba hara non heldu didan besotik Maribik eta Inaxik ez entzuteko moduan galdetu didan, zuk zer uste duzu, Lali. Orduan, lehen ere infernurik ez zen, ala kendu egin dute?

Neureak eta bi egin behar izan ditut algara betean ez lehertzeko. Irudikatzen al dituzu, Garbi, abade sotana-luze horiek denak infernua desmuntatzen? Nola hartuko zuten ba tramankulua desmuntatzeko lan-lekua esku-zuri horiek!

Barreari eutsi eta halaxe esan diot Maribiri, hara, nik infernurako beldurrik ez zeukanat eta zerurako pozik ere ez.

Hori da hori, Presen.

Hainbeste jakin eta iruzur handienarekin konturatu ez.

Zu ere argi askoa zinen, Presen, baina ez zenuen dena harrapatzen.

ZAZPI

EDOZEIN EGUNETAN izaten da hemen jateko laranja. Aukeran ematen digute azkenburukoa. Platanoa ala flana. Jogurta ala laranja. Atzo laranja hartu nuen eta zurekin akordatu nintzen. Ezkonberritan Felixek Durangotik laranja bat ekarri zizula eta nola jo zenuen nire sukaldeko leihoan kax-kax, ikus nezan. Azazkalak azalean sartu eta usaindu genituen lehendabizi. Zure hatzak nire sudurrean eta laranja usain hura. Hartzen al duzu usaina, Lali, hartzen al duzu? Hartuko ez nuen ba. Zuritu eta ahal bezain gutxi mailatuta banatu genuen bitan, ahoak adurretan.

Erdi bana jan genuen. Sekula laranja bat probatu gabea nintzen.

Handik aurrera erregalu gutxi izan zen zuenean. Ezkillarriko zulotik sartuta urtean bitan jotzen du ba eguzkiak San Rokeko ermita; ba halatsu. Eta hala ere aldiro pizten zitzaizkizun begiak gizon hark zapiren bat edo galtzerdi fin pare bat ekartzen zizun bakoitzean. Huraxe amorrazioa nirea. Gutxi behar du gizonak.

ZORTZI

EZ DIDAZU SINETSIKO. Bizi osoa kexaka eta haizea faltan dut hemen. Haize harroaren hotsa harrizko hormen kontra, atariko intxaurraren adarren kontra, adarrak dantzan, Presen. Udaberri-hasieran makurtuta joatea egur bila, zikinik edo lastorik ez sartzeko begiak erdi-itxita, mantala azalaren kontra-kontra, pentsatuz, agur nire aurtengo begoniak. Bentanatik Anboto gaineko laino saldoak abiadan ikustea, eta orbela airez aire. Intxaurraren hostoak biz-biz lurrean dantzan.. Hemen lainoak ere geldi egoten dira eta orbelaren hotsaren antzekoa den soinu bakarra Inaxik egiten du mendazko karameluak ahoratu aurretik haien plastikotik ateratzean.

BEDERATZI

HORIEK DIRA ILE-MODUAK HORIEK.

Hara zer esan didan Garbiñek gaur ikusi orduko.

Joan zaizkio honi erruak eta errukiak, Presen.

Koskortzen hasi zenean egiten nion bezalaxe egiten dit orain berak niri. Horrekin bai damutzen naizela. Garbiri gozoago egin ez izanarekin.

Hamabost urte zituen larunbat eguerdi batean auzoko hiru zaparro etxera txapela eskuan etorri zirenean. Gogoratzen duzu? Nola gogoratuko duzu, ez zeunden eta. Baina kontatu nizun.

Goiza hotz zetorren. Amillana zebilen eta orbizten ari ziren etxe-azpiko pagoak zurituta zeuzkan zurdak. Aurpegian antzeman nien nik. Presen etxean al da, mutilek, eta ez, Durangon da, nik. Felix. Felix pinuak azpian harrapatu du. Eskuak laztuak izanagatik gazteena bizarrik hazi gabea zen oraindik eta izualdia joan gabe nabari zitzaion begiradan. Ahaleginak eta bi egin ditugu, baina ezin izan dugu garaiz atera. Jesusmariatajose esan, aitaren egin eta atarira eta bentanetara begiratu nuen berehala Garbiñe eta Miren inguruan ote zebiltzan ikusteko. Ez ziren ageri. Eskerrak eman nizkien mutilei eta lanera itzuli ziren. Gizonek ekarri zuten gorpua handik ordu pare batera edo. Ordurako nik eman behar izan nien berria zure bi alabei. Miren malkotan hasi zenean indarrez besarkatu nuela gogoratzen dut. Eta nola heltzen zidan berak gerria, esnezko eskutxo haiek nire artilezko jertsean ukabilduta. Eta nola joan zen Garbi sukaldera. Nola eraman zituen jaso gabe zeuden gosariko katiluak harraskara eta nola heldu zion erratzari ordura arte ikusi ez nion ganoraz.

Begira geratu nintzaion eta ez nuen besarkatu.

Hori kontatu nizun?

HAMAR

HARA, SEKULA EZ ZAIT GUSTATU eta orain ere sekulako amorrazioa ematen dit. Bada atso bat hemen kexa besterik ez duena. Hau, hori, bestea, atzo izara garbietan orbana aurkitu ez bazuen, gaur izango du bazkaritan bezperako ogia jarri izanaren susmoa, eta hala ez bada bihar ariko da protestan garbitzaileek lanbasaren ura lorrinegi izaten dutela eta lur ugerdoak usain txarra duelako. Bere gelakideagatik ere jarduten du. Gelakide gaixoa orbel-herrikoa da, izatez, eta baldresa ere bai egia esan behar bada; baina haren pixoihalari usaina badario koitaduaren errua ez da. Ba han aritzen da erostan gure andre hau; saskila zer da ba, saskila! Egun osoan darabilen txiza-hatsa!

Gaur esan dit Inaxik gure señora arranguratsua entzun duela erizainari esaten ezetz eta ezetz, uzteko bakean, berak ez duela behar eta ez duela pixoihalik jantziko.

Huntzak ere errazago egiten du gora pinu-azalaren arrakaletatik.

HAMAIIKA

EZ NAIZ OHITZEN ZU GABE, Presen.

Oraindik goizero gogorazten dit buruak hilda zaudela eta goizero ematen dit min. Batzuetan iratzartzean etxean nagoela pentsatzen dut eta ezustekoa hartzen dut argi-pizgailuari emateko besoa luzatu eta hutsunea nabaritzen dudanean. Ze arraio. Eta konturatzen naiz hemen ohea gelaren beste aldean dudala, horma beste aldean dagoela, eta Inaxi dudala aldamenean lo, eta ez zu. Beste batzuetan iratzartzen naiz, eta badakit hemen nagoela, badakit ez nagoela etxean, besoa alde onera luzatzen dut argia pizteko, baina berdin-berdin heltzen zait sastada, uneren batean. Ohean etzanda begiak zabaltzearekin bat, edo bainu-gelako ispiluari begiratzen diodanean edo komunean jarrita garbitzeko papera eskuetan hartzean, edozein momentutan, iratzarri eta bi minutura gehienez, sastada. Egunero, Presen.

Garbiñek ulertzen ez duena da etxean ez nengokeela hobeto.

Joan zinenetik ederra mingarri zaidala.

Ez daukadala indarririk umeen eta haren maitasunari eusteko.

Eta amets egiten dut berarekin, Presen.

Etxeko sukaldean ikusten dut erratz-kirtenari helduta.

HAMABI

FELIX HIL BERRITAN ZEN. Sukaldeko leihotik eliza-aldameneko gerezia loretan ageri zen eta Miren mahaian jarrita patatak zuritzen ari zen. Ordurako ez zuen mingain muturra alde batera ateratzen, ez zion patatari behar baino indar gehiagoz heltzen eta arin eta zehatz zebilkien labana. Zu ere hari begira harrapatu zintudan eta dagoeneko tarrotu zaigu, esan nizun.

Eta tristura hori antzeman nizun, beste behin.

Ez zenuen esaten, hori eskertu izan dizut beti. Baina antzeman egiten nizun, behin eta berriz, eta itoginak zulatutako harrian tanta sakonago erortzen da.

Nirekin ez zenuen sekula aipatzen. Besteek aipatzen zutenean ez zidan inporta. Esnezaleak esango zizun goiz batean gogoan zuela artean Felix bizi zela nolako ira-metak izaten ziren gurean, eta zuk bai horixe, harekek zeukan abilezia, hark. Horrelakoek bost axola niri. Apatara jaitsi eta aspaldi ikusi gabekoren batek Garbiñeri goitik behera begiratu eta esaten bazuen ene bada, sinesteko ere, Felixen igual-iguala. Haren begirakunea izango du inondik ere, baina, burugogorkeria nirea, pentsatzen nuen nik, eta aurrera.

Baina zure tristura hori ezin nuen jasan.

Ezin nuen sinetsi nola izan zenezakeen hain gizon zakarraren mira hainbeste urte eta gero. Ulertzen nuen jendearen aurrean alargun onaren papera jokatu beharra, baina inor begira ez zela ere nolatan senti zenezakeen basurde haren falta, hori ezin nuen ulertu.

Enborra txarrantxaz inguratuz gero azalak bere egiten ditu arantzak hazi ahala, eta burdin haria kenduz gero zauria egiten zaio zuhaitzari.

Felix hil eta bi alaba; batak hamabi urte eta besteak zortzi. Pinuak zaharrena jaiotakoan sartuak, hura lanerako bezalaxe pinuak saltzeko gazteegi eta soroko eta basoko lanetarako besoak falta. Gauetan zure intziriak entzuten nituen burkoaren kontra egiten bazenituen ere, eta damua izaten nuen, Santa Barbarari egindako nire errezoena.

Gau haietako batean erabaki nuen paper-fabrikako bulegoetan lanean hastera.

Goizetan hango lanak, arratsaldetan etxeak, Garbiñe eta Mirenek musuak gorri eta igandetan libra erdi zankar lapikoan.

Nire bizitzako urterik onenak.

Baina, dagoeneko tarrotu zaigu esan nizun patatak zuritzen ari zela eta zu harekin akordatu zinen ni orain zurekin akordatzen naizen bezala eta ezin dut tristura hau tripetatik atera ezelan ere.

HAMAHIRU

GOGORATZEN AL DUZU, Presen?

Garbiñe jaio berritan, San Martinetako uda txikia zen eta zu erroimenak jota zeunden, bularak harri, oinaze batean. Goizeko ordu txikitan Felix ohean utzi eta jotzen zenidan atea kamisa hutsean eta etzaten zinen nik epeldutako lekuan. Beheko sua pizten nuen eta ez kai-ura ematen nizun. Ortura atera eta aza hostoak jartzen nizekizun bularren gainean eta umea mantarretan ondo bildu eta besotan hartzen nuen, lo egin zenezan, gaixo horrek.

Zure ile luzea izara zuritan. Ume jaioberriaren arnasa beso-artean.

Ez nuen jainkorik behar.

HAMALAU

PSIKOLOGOARENGANA NARAMATE, Presen. Hauek nonbait pentsatu dute burua haizez bete zaidala. Ohiko azterketa dela esan didate, baina ikusten dut nik nortzuk eramaten dituzten andre moko-zorrotz horrengana, eta ez dira hain zuzen burua argien daukatenak koitadu errukarriok. Baliteke hala izatea. Euri asko egiten duenean Anboto gainean pilatzen den ura Urtzilotik ateratzen da, eta horma zurion artean oroitzapenak ere pilatu egiten zaizkio bati. Baliteke nonbaitetik alde egiten hasiak izatea nire urak ere.

—Egun on.

—Jainkoak emon.

Utzi egin behar zaitut, Presen.

Gero bazkaria dugu eta gero Garbi etorriko da, beraz, iluntzean egongo gara.

—Zer moduz zaude, Eulalia?

—Hobeto gura bez.

HAMABOST

GAUR GARBIÑEK zure berokia ekarri dit bueltan. Jostunak neurri-neurrira jarri dit. Mahukak laburtu dizkit, eta azpialdea ere bai. Paperezko poltsa batean ekarri dit, moztutako txatalak eta barruan zituela. Ez nituen bota nahi eta burkopean gorde ditut.

Eta bihar ezingo dut kartetan aritu, hitzordua dut eta ile-apaindegian. Ilea moztu, tindatu, bekainak txukundu, eta azazkalak pintatu behar ditut bizitzan lehen aldiz. Zer iruditzen zaizu? Ez nauzu sekula horren dotore ikusi, ezetz? Sorpresa zen, baina tira, orain badakizu.

Edonola ere, kartetan aspertzen hasia naiz, zer nahi duzu esatea. Gaurkoan orbela baino ez dut eduki, gainera, eta ernegatuta pasa dut arratsaldea, Presen. Dena lauhoak eta seikoak eta pasakartak. Horrelakoetan ematen diot arrazoia Garbiri. Etxean, urdaileko zuloan amorrua pilatzen zitzaidanean kanpora atera nintekeen, etxe-jirako hortentsiak ureztatzera edo ortura, belar txarrak kentzera, edo egurra txikitzera. Egur-lanetik gorako amorruek, berriz, hobe aldapan gora bota, aizkorarekin eskapadarik egin gabe. Baina hemendik nora joan behar dut ba.

Zenbat aldiz igo ote naizen Artolako lepora arnasa erreta, Presen. Nik bakarrik dakit hori.

Uda bete-beteko larunbata zen, kortako hormaren kontrara hazitako pikua bete-beteta zegoen eta haren gerizpean ari nintzen nebarena izandako bizikleta zahar bat konpondu guran.

Felix belarretara zihoala paretik pasa eta “Atzamar-oskol beltz horiekin azaldu behar al dun bihar plazara? Neskazahar geldituko haiz, prima”. Ez nituen begiak altxa ere egin. “Nik hire lagunari bota zionat begia”, esan zidan. “Hark bai utzi errapeak ukitzen”.

Haginak estutu eta arnasari bularrean eutsi. Horixe egin nuen.

Ordurako pare bat igandetan neska-laguntzen joana zen zurekin Sagastaraino. Urteak ziren zuk gustuko zenuela. Begiratuan antzematen nizun zuri ere. Inguruko neska askok nahi zuten senargaitzat gure lehengusu hori. Osabak burdin minen garaian orbel mordoa egin zuen; etxea, bi bizitzakoa izanagatik, eliza ondo-ondoan zegoen eta hazpegi ederrekoa zen mutila, dena esan behar bada. “Pago lerdana zirudin hire lehengusuak”, zuk. Eta nik barruak lasaitzeko pentsatzen nuen pagoek, inausi ezean, karga hartzen dutela goian, eta haizeak berak botatzen dituela gero. Esaten nizun nik badaezpadakoa zela gure Felix. Zuk dantzan besoak noraino jasotzen zituen baino ez zenuen ikusten.

“Hire lagunari bota zionat begia”. “Hark bai utzi errapeak ukitzen”.

Felix bidean ezkutatu arte itxaron nuen bizikleta hormaren kontra bota eta Elexaburutik gora abiatzeko. Bururik ez nuen altxa Alluizpera iritsi eta Artolako zelaian amore eman arte, izerdi patsetan eta masailak sutan.

Belarretan etzan nintzen, gora begira.

Gerriko soka askatu, begiak zarratu, esku belztua gonapean sartu eta hankartera eraman nuen amorruren amorruz.

Oraindik bizi-bizi senti dezaket eguzkiaren bero gorria betazaletan.

HAMASEI

GAU OSOA PASA DUT AZKURA BATEAN, Presen.

Dutxako urak eraman gabeko ileak lepoan eta bularrean eta belarriko zuloan eta azkura han hor
hemen.

Inaxik ere ez du gau ederra pasa.

Garrasika eta alarauka aritu da gauerdian.

Uju berak eta zer dun nik; uju berak eta zer dun ba; berriz ere uju eta zer behar dun, Inaxi?

Gaixoak tragatu behar zuela uste nuen eta bada ezpada jesukristonerejaunaka ere aritu naiz.

Gero arranak Anboton soinua galtzen duen bezala isildu da halako batean Inaxi ere, baina
geroztik ez dut begirik bildu.

Haize hotza dabil gaur, Presen. Laino-tontorrak datoz.

OMEGA

— EZ DAKIGU ZER GERTATU DEN, Oleaga anderea. Goizean gelara sartu garenean ez zegoen barruan. Bai, komunean begiratu dugu, noski. Han ere ez. Batzuetan gauean desorientatu egiten dira, ohikoa izaten da, eta gerta liteke gaueko zaintza dutenek gelatik ateratzen ez ikustea, eta beste nonbait egotea eguna argitzean. Baina bazter guztietan begiratu dugu eta ez da inon ageri.

—Inguruetan ere begiratu duzue?

—Goiz guztia daramagu bila, udaltzainak ere ari dira eta Ertzaintza jakinaren gainean dago.

—Berokia eraman du?

—Zer?

—Bere beroki grisa. Artilezkoa. Eraman egin du?

—Ez, ez du ezer eraman.

—Joder, Lali.

—Gure esku dagoen guztia egiten ari gara.

—Artolako zelaira joana da hau.

—Zer, barkatu?

—Ezer ez. Jarraitu bila. Bidean naiz dagoeneko.